



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prentsa Oharra Nota de Prensa

Zerga nagusien laburpena

Dirubilketa metatua 2019ko apirilean

% 6,2 egin du gora Arabako Foru Ogasunaren dirubilketa metatuak

Apirilera bitarteko dirubilketa metatuaren zenbatekoa 573,1 milioi
eurora iritsi da

ITUNDUTAKO ZERGAK, GUZTIRA (laburpena)

Urtearen lehenengo lau hilabeteetan, zergabilketa % 6,2 hazi da iazko aldi berarekin alderatuz, eta ia 573,1 milioi euro bildu dira. Beraz, dirubilketa etengabe hazten ari da, eta, hilabete honetara arte, 33 milioi gehiago bildu dira iazko aldi berean baino.

Zergaka aztertuz gero, jarrera positiboa da, enplegua hobetu eta egonkortu delako (PFEZa) eta kontsumoa ere handitu delako (BEZa). Hori guztia amatasunen eta aitatasunen itzulketak egitearen ondoriozko saldo negatiboa gorabehera.

Oraindik ezin da behin betiko ondoriorik atera enpresen jokabideari buruz; izan ere, oraindik ez da hasi Araban sozietateen gaineko zergaren kanpaina, baina nabarmendu dezakegu zergak estatuko araudiaren arabera ordaintzen dituzten enpresen konturako ordainketak areagotu egin direla.

Laburbilduz, Arabako dirubilketa datuak aztertuta, ondoriozta daiteke ekonomia sendotzen ari dela eta baieztatu daiteke Arabako ekonomiaren egoera ona dela.



ZUZENEKO ZERGAK: +4,4%

1) PFEZa: 184 milioi (-% 7,7)

Lan etekinen gaineko atxikipenek handitzen jarraitzen dute: % 4,2 da hazkunde metatua, 2018ko apirilean baino ia 9 milioi gehiago, eta horrek enpleguaren hobekuntza izan dela berresten du, bai eta enpleguaren eta soldaten egonkortasuna ere.

Horregatik beragatik, nabarmen hazi dira profesionalen eta enpresen ordainketa zatikatuak; hau da, langile autonomoen ekarpena, zeina % 12,4 hazi baita, ia 7,6 milioi euro guztira.

Edonola ere, eboluzio orokorrak balio negatiboak ditu, batez ere 2013tik prestazioak kobratu zituzten gurasoei itzulketak egin zaizkielako. 2018an eta 2019an, orain arte, Foru Ogasunak 16 milioi euro itzuli ditu eta, hori dela eta, 15.220 likidazio egin ditu.

2) SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA: 26 milioi

Sozietateen gaineko zergaren bidez bildutakoa, guztira, 26 milioi euro izan da, eta horrek erakusten du hazkundera handia izan dela aurreko urtearekin alderatuz.

Bilakaera hori itzulketa datak aurreratzeari zor zaio nagusiki, eta baita estatuko araudiaren arabera zergak Araban ordaintzen dituzten enpresek kontura egindako ordainketen areagotzeari ere. Edonola ere, goiz da oraindik behin betiko ondorioak ateratzeko, zergak Arabako araudiaren arabera ordaintzen dituzten enpresen sarrerak ez baitira abuztura arte zenbatzen.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prensa Oharra Nota de Prensa

ZEHARKAKO ZERGAK: +5%

1) BEZa: 197,3 milioi euro (+ % 1,4)

BEZaren dirubilketa aurreko urtearen antzekoa da. Hain zuzen ere, % 1,4ko hazkundera izan da, eta 197,3 milioi euro lortu dira urtearen lehenengo lau hilabeteetan. Hortaz, ekonomia jarduerak eta enpleguak hobetzen jarraitzen dute.